

HAURREN NAZIOARTEKO EGUNA 2020

HAURREN ETA NERABEEN ESKUBIDEEN DEFENTSAN EAE-KO AUZO ETA UDALERRI GUZTIETAN

Gaur, azaroak 20, Haurren eta Nerabeen Nazioarteko Eguna da eta gaurko egunez onartu zuen Nazio Batuen Erakundeko Batzar Nagusiak Haurren Eskubideei buruzko Konbentzioa (HEK). Hala, hemen bildu garen erakunde guztiok berretsi egiten dugu haurrekin nahiz nerabeekin eta Euskadiren etorkizunarekin dugun konpromisoa, inor atzean geldirik ez dadin.

HEKek ezartzen ditu erakundeek haurren eta nerabeen osasun-arreta, hezkuntza, babes juridikoa eta soziala bermatzeko aplikatu beharreko gutxieneko arauak. Tresna juridikoa izateaz gain, orientabide etikoa eta politikoa ere eskaintzen ditu haurren eta nerabeen eskubideak benetan gauza daitezen, eta gizarte osoaren biziraupenerako eta aurrerabiderako eredu bat ere bada. Haurrek eta nerabeak, besterik gabe arretaren eta babesaren xede izatetik, eskubide osoko subjektu izatera igarotzen dira. Azken finean, leku bateko etorkizuna oparoa izango da belaunaldi gazteenen garapenaren neurrian.

Demokrazia eta parte-hartze handiagoko gizartea eraikitzeko bidean aurrera egiteko tresna baliagarri bihurtu da HEK; izan ere, eskubideak gauzatzea herritarren funtsezko sektore batera zabaltzen du: haurren eta nerabeen sektorerara, hain zuzen. Zalantzarik gabe, pertsona horien bizi-kalitatean isla du horrek, gizarteko bizikidetzara garrantzia ematen zaiela jakiteko eta sentitzeko modua ematen baitie.

Erakunde publikoek haurren eta nerabeen bizitza hobetze aldera neurriak hartzeko duten betebeharra negoziatzen da, eta hala ezartzen du HEKek 4. artikuluan. Baliabideak izateak edo haien gabeziak –giza baliabideak, baliabide materialak edo finantza arlokoak– baldintzatuko du betebeharrak hori betetzeko modua, baina baliabideak gorabehera, ez dago betebeharrak hori saihesterik. Eta kontua ez da eskubide batzuk beste batzuen kaltetan konpentsatzea edo justifikatzea. Haur eta nerabe bakoitzak bere eskubide guztiak gauzatzeko eskubidea du.

Haurrez arduratzen ez diren erakunde publikoek eta haurrei babesa eta garapena eskaintzeko zeregina kolektiboki bere gain hartzen ez duen gizarteak gero eta kostu publiko eta pribatu handiagoak izango ditu etorkizunean.

COVID-19AREN ERAGINA HAURREI ETA NERABEEI

Osasun-sistemak gainezka egoteak, konfinamendu zorrotzak, jarduera ekonomikoa gelditzeak eta ikastetxeak ixteak zuzenean eragin die haurren eta nerabeen ongizateari eta haien etorkizuneko aukerei.

Nabarmen areagotu dira ikasturtearen martxari jarraitzeko arazoak; baita baliabide-eskasiarekin lotutakoak, oinarriko produktuak eskuratzeko arazoak, dieta eskasari eta desorekatuari lotutakoak eta bizileku- eta energia-pobrezia ekarritako arazoak.

Hala, haurrek jasandako ondorio nabarmenetako batzuk hauek dira: **haurren pobrezia areagotzea, osasun fisiko eta mentaleko arazoak, berdintasun-faltak areagotzea, bai ekonomikoak, bai hezkuntzakoak.** Gainera, ondorio horiek ez diete denei berdinean eragiten, baizik ahulenak ari dira, berriro ere, ondorio horiek gogorren jasaten.

EAEn abiapuntuari begiratuta eta 2019ko Bizi-baldintzei buruzko Inkestaren arabera, 18 urtetik beherakoen artean % 26 baino gehiago (93.000tik gora) zeuden pobrezia edo gizarte-bazterketa jasateko arriskuan. Abiapuntu hori eta lan-merkatuaren krisiaren eragina aintzat hartuta baieztatu dezakegu **inoiz ez dela hainbeste familia** azken hilabete hauetan bezain **azkar pobretu**.

Gero eta handiagoa den haurren pobrezia ez da familien errenten eta aberastasunetan dauden aldeetan bakarrik ikusten; horrekin batera, gabeziak izaten dira aukera-berdintasunean eta hezkuntza, enplegua, osasuna, etxebizitza, energia edo teknologia eskuratzeko aukeretan ere.

Egoera honetan sortu diren ezohiko inguruabarrak **gizarte gisa erantzuteko dugun gaitasun proban jartzen ari dira**; eta ez COVID-19ak ekarritako larrialdiari erantzuteko bakarrik, baita etorkizunerako, suspertzeari begira datozkigun erronkei erantzuteko ere, krisi honetatik denok hobeto, jasagarritasun, ekitate eta oparotasunerako aukera handiagoarekin atera gaitezen.

SUSPERTZEKO PROPOSAMENAK HAURREN ETA NERABEEN ESKUBIDEEN IKUSPEGITIK

Inflexio-unea da, denon artean **haurrentzako nahi dugun etorkizuna berrirudikatzekoa**; izan ere, hurrek eta nerabeek orain heziketa jasotzeko, jolasteko, ikasteko, garatzeko, hazteko baliabideak badituzte, etorkizunean gizarte osoak izango du arrakasta.

Erakunde publikoek, krisiari nahiz suspertzeari lotuta, haurrei eta nerabeei eragiten dieten erabakiak hartzean, beti hartu behar dituzte aintzat Haurren Eskubideei buruzko Konbentzioaren printzipio gidariak: haurren interes gorena; bizitzeko, bizirauteko eta garatzeko eskubidea; parte hartzeko eskubidea; eta diskriminaziorik ez jasateko eskubidea. **Gobernuaren atal guztiek hartu behar dute parte haurren eskubideak sustatzeko lanetan**. Hala, helburuek partekatua izan behar dute, eta ekintzak modu koordinatuan egin behar dira erakunde barruan zein erakunde artean, euskal gizarteko askotariko eragileek parte hartuta, eta batez ere hirugarren sektore soziala osatzen duten sareek eta erakundeek parte hartuta.

COVID-19ak haur eta nerabeetan **zer eragin izan duen aztertu behar da**, batez ere talde ahulenetako kideetan zer eragin izan duen, eta horren arabera egokitu behar da **haurren eskubideak babesteko estrategia global bat**. Diagnostiko, misio, ikuspegi eta artikulazio operatibo (plangintza, jarraipena, ebaluazioa...) bateratua eta trinkoa behar ditugu. EAEn haurren eskubideak urratzeari lotutako erronkak eta askotariko egoerak gainditzeko; baita pobrezia eta gizarte-bazterketaren ondorioak gainditzeko ere: hezkuntza-itzaropen apalagoak (eskola uztea eta eskola-porrota; konpetentzietan gabeziak; etorkizunean enplegarritasun-tasa baxuak; arrakala digitala; euskara eta keinu-hizkuntza erabiltzeko zailtasunak; kultura, hezkuntza, sormen, zientzia eta teknologiako pizgarrien falta edo eskasia; ikaskuntza ez gomendagarriak); jokabide arazoak (isolamendua edo distantzia soziala; bakardadea; inkomunikazioa, hezkuntzako erreferentzia gertuko eta konfiantzazkoen eskasia; balio desegokiak; egiazkoa ez den informazioa eta gezurrak erabiltzea); osasun fisiko eta psikologikoko arazoak (elikadurari lotutako zailtasunak; ziurgabetasuna; beldurrak; erruak; presioa; frustrazioa; errutina toxikoak); bizikidetzaren arazoak (bizikidetzaren ez-adiskidetsua; indarkeriak; komunitateko bizitzan ez parte hartzea; familiako tentsioak; ingurumena suntsitzea).

Lehentasuna da EAEko auzo eta udalerrri bakoitzeko adingabe bakoitza bere inguruabar pertsonaletan babestea eta, oro har, haur eta nerabeen taldea osorik babestea. Premiazkoa da adingabeen eskubideak babesteko baliabideak, proiektuak eta zerbitzuak sustatzea eta indartzea: herrialde mailako erronka honek erakunde publikoen, hirugarren sektore sozialeko eragileen eta euskal gizarte osoaren inplikazioa eskatzen du. Babesa, prebentzioa, sustapena eta parte-hartzea. Ekitatea sustatzea eta haur eta nerabe zaurgarrienak artatzea.

Horretarako, **presaz indartu behar dira seme-alaba adingabeak kargura dituzten familiek jasotzen dituzten larrialdiko gizarte-laguntzak.** Familia zaurgarrienei eman behar zaie lehentasuna; besteak beste, guraso bakarreko familiei. **Etxebizitza eta/edo bizitoki-aukerak** eskaini behar zaizkie, familiaren neurria eta baldintzak aintzat hartuta **duinak** diren aukerak, jolasteko, mugitzeko eta sozializatzeko aukera ematen dutenak.

Familiei baliabideak eskaini behar zaizkie, gurasotasun positiboa sustatzeko eta **familiako jarduerak egitea errazteko.** **Indartu egin behar dira** eskola uzteko arriskuan dauden, desgaitasunak dituzten edo arrakala digitalean dauden **neska-mutilei zuzendutako programa hezitzaileak.** **Hirietako plangintzan eta mugikortasuneko estrategietan haurrak eta jasangarritasuna aintzat hartuko dituen ikuspegia txertatu behar da.** Sustatu egin behar dira ingurumenaren zaintza eta errespetua, berdeguneetara eta espazio osasungarri eta kutsadurarik gabekoetara joatea eta kanpoan eta naturan egiten diren jarduerak garatzea.

Funtsezkoa da **EAEko auzo eta udalerrri guztiak gizarte eta hezkuntza arloko ekimenetarako zentroak izatea (tokiko estrategiak), haurrei, nerabeei eta familiei babesa emateko.** Proiektuak eta zerbitzuak eskaini behar dituzte, astelehenetik igandera. Adingabeentzako babes izan behar dute; bereziki egoera zailtan daudenentzat. Familien kontziliazioa errazteko eta familiei laguntzeko balio behar dute. Espazio erabilgarri eta funtzionalak behar dira, haurren eskubide guztiak bermatzeko moduan antolatuta. Eskaintza egokia izan eta behar beste jarduera eskaini behar dituzte dagozkien profesionalekin eta boluntarioen parte-hartzearekin, justizian eta gizarte-eraldaketan oinarritutako balioetatik abiatuta. Elkarlanean arituko diren proiektuak eta eragileak, ikastetxeak, administrazio publikoak, hirugarren sektore sozialeko eragileak eta, oro har, komunitate osoa konektatuz. Haurrei, nerabeei eta haien familiei eman behar zaie protagonismoa, eta haien ongizate indibidualari eta familiaren ongizateari lotutako erabakiak hartu behar direnean, lagundu egin behar zaie parte-hartzen. Komunitate hezitzaileak izateko eta haurrak eta nerabeak zaintzeko bidean aurrera egin behar dugu. Eta hori guztia egiteko, hor daude aisialdiko heziketarako zerbitzu eta proiektuak ere; izan ere, aisialdia ere gizarteratzeko eta hezkuntzarako espazioa da, baita haurren eta nerabeen eskubidea ere.

Espazio babesleak sortu behar dira, umeek haien emozioak ulertzen, partekatzen eta kudeatzen ikasteko espazioak, edozein motatako indarkeriaren aurkako babes-protokoloak eskainiko dizkietenak.

Tokiko erabakietan **haurren eta nerabeen parte-hartzea indartu behar da**, tokiko maila hori baita eskubide osoko herritar aktibo gisa gertuen duguna. Horrez gain, interakziorako erabiltzen dituzten arlo guztietan ere erabakietan parte hartzea sustatu behar da.

Neurriek herritar guztiengana gerturatu behar gaituzte, haien beharretara, eta aukera eman behar dute haurrak COVID-10aren krisiarentzako erantzunaren eta suspertzearen erdian jarriko dituen estrategia bat izateko, eta aldi berean, Garapen Jasangarrirako Agenda 2030ek eta Euskadi Basque Country Agenda 2030ek datozen 10 urteetarako ezarritako helburuak betetzeko helburua indartu behar digute.



Saihestezina da haurrei, nerabeei, gazteei eta familiei lotutako politika publikoak, politika sozialak eta hezkuntzakoak paradigma eta eredu berriekin berreraikitzea eta indartzea; lagundu egin behar dute euskal haur eta nerabeen eskubideak bermatuko dituzten jarduerak garatzen.

Familien eta Haurtzaroaren aldeko Euskal Itunean elkarrekin aurrera egitea da kontua. Haur eta nerabe guztiek umeentzako arreta-zerbitzu irigarri, eskuragarri eta kalitatezkoak jasotzearen alde egin nahi da. Hezkuntzako politikak birbideratzeko eta inklusioa eta hezkidetzaren ardatz izango dituen eskola-sistemaren eraikuntzan sakontzeko. Sistema horrek ekitatea bermatu behar du eta orekatu egin behar ditu desabantaila sozial eta ekonomikoan dauden ikasleen zailtasunak. Ume eta gazte guztiek, baldintza berdinetan, gizarte eta hezkuntzako, kiroletako, kulturako eta aisialdiko baliabideen eta ekipamenduen eskaintza zabalagoa jasotzea da helburua. Eta haur eta nerabe guztien eskubideak bermatuko dituen gizarte-babeserako sistema indartu nahi da.

2020ko azaroak 19